

BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

4258

AGINDUA, 2012ko irailaren 19koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, salgaien garraio konbinatua sustatzeko laguntzetarako deia egiteko dena.

Europar Batasunaren Liburu Zuriak (Europar espazio bakarrerako ibilbide-orria: garraio-politika lehiakor eta jasangarri baterako bidea) kate logistiko multimodalen errendimendua optimizatzeko helburuaren alde egiten du, eta horretarako energiaren aldetik garraibide eraginkorragoak erabiltzea bultzatzen du, besteak beste, trenbideko eta itsasoko garraioa.

Europar Batasunak askotan azpimarratu du itsasoko eta trenbideko garraioa zeinen garrantzitsuak diren mugikortasun iraunkorra eta segurua sustatzeko, Europar Batasunaren barruan kohesioa handitzeko, eta garraioaren eragingarritasuna planteamendu intermodalaren bidez hobetzeko. Gainera, onartzen du itsas garraioa Europako Erkidego mailan, estatu mailan eta eskualde mailan bultzatu behar dela.

Laguntza-programa honen bitartez errepideko salgaien ibilgailu astunetatik karga itsasora eta trenbidera eraman nahi da, ahal den neurrian euskal errepide-sarea kamioi astunetatik arintzeko.

«Garraio Iraunkorraren Gidaplana, Garraio-politika erkidea Euskadin, 2002-2012» agirian Euskadiren garraio-politikarako ezarritako helburuak kontuan izanik, garraibideen arteko bestelako oreka bat sustatu nahi baitute, laguntza hauek testuinguru horretan sartuko lirateke, laguntzen xedea baita aterik ateko garraio-zerbitzuen katea intermodalean errepideko garraioari pisua kentzea eta errepidetik kendutako karga hori itsasoz eta trenez garraiatzea.

Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren bidez, garraibideen arteko bestelako oreka bat lortzeko neurriak hartzen jarraitu nahi du, garraibiderik iraunkorrenak eta garbienak sustatu ahal izateko. Eta, horretarako, beharrezkoa da adierazitako helburuekin bat datozen laguntzak emateko sistema bat arautzea.

Agindu honen helburua da salgaien trenbideko, itsasoko eta errepideko garraio konbinatua sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko era zehaztea.

Herritarrei Administrazioarekin dituzten harremanak errazteko, eta laguntzen barne-kudeaketa eraginkorrago egiteko, prozedurako izapideak telematikoki egiteko aukera ematen duen aplikazio bat egin da, Administrazio Elektronikoa buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraituz (EHAA, 50. zenbakia, 2012ko martxoaren 9koa). Aginduan izapidetze telematiko horren xehetasun guztiak jaso dira.

Laguntza hauek Europako Erkidegoa Eratzeko Itunaren 87. eta 88. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruz Kontseiluak 2006ko abenduaren 15ean onartutako 1998/2006 (EE) Erregelamenduan (EEAO L 379/5, 2006-12-28) eta ondorengo aldaketetan ezarritakoaren mende daude.

Ondorioz, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 4.1 artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenaren) VI. titulua eta VII. tituluko II. eta III. kapituluak

eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ordaindu beharreko laguntza eta diru-laguntzei aplikatu beharreko gainontzeko xedapenak kontuan izanik,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Laguntzen xedea eta diru kopurua.

1.–Agindu honen xedea da salgaien garraio konbinatuaren sustapenerako laguntza ekonomikoak egiteko deialdia egitea; hain zuzen, honako konbinazio hauek lagunduko dira:

a) Itsaso eta errepideko garraioa, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europar Batasuneko kide diren estatuetako portuen artean.

b) Errepideko eta trenbideko garraioa, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europar Batasuneko kide diren estatuetako geltokien artean.

c) Trenbideko eta itsasoko garraioa, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europar Batasuneko kide diren estatuetako geltoki edo portuen artean.

Diruz laguntzekoak diren garraio-eragiketak 2012an egin beharko dira.

2.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak emateko berrehun mila (200.000) euroko diru kopurua baliatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko Aurrekontu Orokorretako kredituetatik hartuta.

Guztirako diru-zenbateko hori handitu ahal izango da, betiere diru-laguntzak esleitzeko prozedura ebatzi aurretik, eskatutako diru-laguntzen kopurua osoa kontuan hartuta eta Etxebizitza eta Gizarte Segurantza Sailak beste laguntza-programa batzuk gauzatu ostean agortu barik geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera, aurrekontuetan aldaketak egitea onartzen den ala ez ikusita. Halakorik gertatzen bada, horren berri emango da, Garraioetako zuzendariaren ebazpen baten bidez.

2. artikulua.– Onuradunak.

Diru-laguntza jasotzeko, pertsona fisiko nahiz juridikoek, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

b) Salgaien errepideko garraioaren, trafikoaren edo mugimenduaren sektorean lan egitea.

c) Bere izenean gutxienez hiru kopia dituen baimen bat behintzat izatea, ibilgailu astunetan salgaien garraio publikoan aritzeko. Merkaturatzeko sozietateen eta garraiolari kooperatiben kasuan, onuradun izateko, bazkideek edo kooperatibistek salgaien garraio publikoan ibilgailu astunekin jarduteko gutxienez hiru baimen izan beharko dituzte.

d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

e) Diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penalik edo administratiborik ez izatea, ez eta horretarako legezko inolako debekurik ere (Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Seigarren Azken Xedapenean xedatutakoaren araberrako sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barnean hartuta daude).

3. artikulua.– Laguntzen izaera, zenbatekoa, eta kalkulatzeko eta emateko prozedura.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko portuen eta geltokien eta Europar Batasuneko kide diren estatuetan dauden portuen edo geltokien arteko garraioen tarifengatiko gastuen ehuneko jakin bat lagunduko da.

2.– Gidaririk gabe doazen gurpil gaineko kargak (Ro-Ro motakoak) itsasoz garraiatzeak edo erdiatoieta egiten diren trenbideko garraioak eragindako gastuak soilik lagunduko dira diruz.

3.– Agindu honetan araututako laguntzak itzuli beharrik gabeko Diru-laguntzak izango dira. Zehazki ehuneko hauek emango dira:

Ro-Ro unitateak/urtean	Ehunekoa
20-50	% 15
51-100	% 20
100etik gora	% 30

4.– Hiru zerga-ekitalditan, onuradun bakoitzak ezin izango du guztira ehun mila euro baino gehiago jaso.

5.– Diru-laguntza garaiz eta forman aurkezten diren eta agindu honetan jasotako baldintza subjektibo eta objektibo guztiak betetzen dituztenei emango zaie, artikuluko honen 3. eta 4. idatzi-zatietan adierazitako mugarekin.

Agindu honetan arautako laguntzak finantzatzeko 1.2 artikuluan ezarritako diru kopurua aski ez bada aurkeztutako eskabide guztiei ezarri bezala erantzuteko (ehunekoari eta gehieneko diru kopuruari dagokionean), hasierako kalkuluak hartu eta diru kopuru osoarekiko legezkiekeen ehunekoari eutsiz banatuko da dirua.

4. artikulua.– Laguntzen izapidetze elektronikoa.

1.– Izapidetze elektronikoa Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak arautzen du.

2.– Nahi dutenek baliabide elektronikoen bidez egin ahal izango dituzte eskaera, kontsultak eta prozedurako izapide guztiak.

Laguntza hauek izapidetzeko baliabide elektronikoak erabiltzeko zehaztasunak euskadi.neteko atal honetan jarriko dira: http://www.euskadi.net/r33-2288/es/contenidos/ayuda_subvencion/combinado_2012/es_combinad/combinado_2010.html.

Eskabidea egiteko eta agiriak aurkezteko bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzeak ez du esan nahi, prozeduraren hurrengo izapideetan horiek erabili behar direnik; aitzitik, edozein momentutan aldatu ahal izango da horien erabilera.

5. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta lekua, eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Eskabideak, eranskinean datorren eskabide-orria behar bezala beteta, paperean aurkeztu nahi izanez gero, Eusko Jaurlaritzaren Herriarrentzako Zerbitzuan (Zuzenean zerbitzuan) entregatu ahal izango dira edo bestela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio Zuzendaritzari helaraziko zaizkio. Eskabidearen eredia agindu honen I. eranskinean dator, eta garraioen arloan eskumena duen organoak euskadi.neten barruan duen egoitza elektronikoa ere eskuratu ahal izango da.

Era berean, baliabide elektronikoak ere erabili ahal izango dira eskabideak eta gainerako agiriak aurkezteko. Informazioa, prozedura eta eskakizunak egiaztatzeko era garraioen arloan eskumena duen organoaren egoitza elektronikoan jarriko dira eskura, 4. artikuluan izapidetze elektronikorako aurreikusitako zehaztapenetan garatutako prozedura eta jarduketei jarraituz. Eskabidearen ondorengo izapideak, baliabide elektronikoa erabiltzekotan, www.euskadi.net/nirekudeaketak webgunearen bidez egingo dira.

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

3.– Agindu honetan araututako laguntzak eskuratzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da, Agindu honen I. eranskineko formularioarekin batera:

a) Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia eta identifikazio fiskaleko txartela edo IFK.

b) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, ahalordea ematen dion notarioaren agiria aurkeztu beharko du haren ordezkariak.

c) Diruz laguntzekoak diren gastuen aurrekontua edo faktura, proformakoa nahiz behin betikoa.

d) Azalpen-memoria, honako hauek jasoko dituen: itsasoko edo trenbideko zerbitzuen erabilpenaren gaineko aurreikuspena, garraiatu beharreko karga motaren deskripzio orokorra, kargaren abiapuntu eta helmuga izango diren estatuak, eta interesgarri jotzen den beste edozer.

e) Ibilgailu astunetan salgaien garraio publikoan aritzeko, gutxienez eskatutako baimen kopurua baduela adierazten duen agiria.

f) Hirugarrenen alta edo aldaketa fitxa, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari buruzko irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren 20. artikuluan deskribatutako ereduaren arabera, baina eskatzaile hauek bakarrik aurkeztu beharko dute: aurreneko aldiz aurkezten direnek edo beren banku-datuetan aldaketak dituztenek.

4.– Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute laguntza-eskabidea eta beharrezko dokumentazioa. Gainera, laguntza-eskabidetik eratorritako jardunetan eta prozedura osoan, eskatzaileak aukeraturiko hizkuntza baliatuko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

5.– Eskabideak aurkeztearekin batera, eskatzaileak berariaz onartu ahal izango du laguntzak kudeatzen dituen organoak dokumentazioaren zati bat eskuratzeko edo egiaztatzeko aukera, Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen eskumenen kalterik gabe.

6.– Laguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.3 artikulua aplikatuz.

7.– Ondoren zehaztuko diren betebeharrak egiaztatzeko aski izango da erantzukizunpeko adierazpen eskabidearekin bat aurkeztea; eredu eskabidearekin batera dator:

a) Helburu bererako urte berean eta aurreko bi urteetan, bestelako diru-laguntza edo laguntzarik eskatu edo jaso badu, norik eman dion eta zenbat eman dion zehaztuko duen zinpeko aitortpena.

b) Ez egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko ezein prozeduratan sartuta.

c) Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penalik edo administratiborik jaso ez duela eta horretarako legezko inolako debekurik ez duela agertzen dituen (Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenetan Seigarrenean xedatutakoaren arabera sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barnean hartuta daude).

Erantzukizunpeko adierazpen batekin edo barnean hartuta doan edozein daturen, adierazpenen edo dokumenturen zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo ez-egiteak, funtsezkoa bada, prozedurarekin ezin jarraitzea ekarriko du gertakari horiek jakiten diren unetik, ekar ditzakeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak alde batera utzi gabe.

8.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Garraio Zuzendaritzak, aurkeztutako eskabidea behar bezala balioesteko beharrezko jotzen duen beste edozein agiri edo argibide eskatu ahal izango du.

6. artikulua.– Kudeaketa-organoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Garraio Zuzendaritzaren ardura izango da Agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

7. artikulua.– Agirien gaineko okerrak zuzentzea.

Eskatzaileak aurkezturiko agiriek Agindu honetan eskatutako baldintzak ez dituztela betetzen ikusiz gero, hala jakinaraziko dio organo kudeatzaileak eskatzaileari, eta hamar egun balioduneko epea utziko dio, okerrak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko; gainera, adieraziko dio, hala egiten ez badu, bere eskaria besterik gabe atzera botako duela, ebazpen bidez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. eta 71. artikuluetan ezarritako eran.

8. artikulua.– Bateragarritasuna.

Agindu honen arabera emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste pertsona fisiko edota juridikoek emandako beste batzuekin, baina guztira jasotako diru kopuruak ezin izango du gainditu diruz laguntzekoa den jardueraren kostua. Nolanahi ere, onuradun bakoitzak ezin izango du hiru urteko epean 100.000 euro baino gehiago jaso de minimis laguntzetan.

Helburu bererako beste laguntza edo diru-laguntza batzuk lortzen badira, eta horren ondorioz diru-laguntzek proiektuaren kostua gainditzen badute, Agindu honi esker emandako diru-laguntza gutxitu egingo da, ezarritakoa betetzeko moduan.

9. artikulua.– Diru-laguntza eman, jakinarazi eta argitaratzea.

1.– EAEko Administrazio Garraioetako zuzendariaren ebazpenaren bidez emango dira diru-laguntzak, ebazpen horrek ez du amaituko administrazio-bidea, eta, bere aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Garraio eta Herri Lanetako sailburuordeari, hilabeteko epearen barruan.

Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan ezarritako modua erabiliz, eta sei hilabeteko epean, agindu honek ondorioak izaten dituen egunetik hasita.

Ebazpen horrek zehaztuko du diru-laguntza ematen den ala ukatu egin den; aldekoa bada, onuraduna zein den eta zenbat eman zaion azalduko da, eta kontrakoa bada, ukatzeko arrazoiak.

2.– Aurreko paragrafoan ezarritako epean ez bada diru-laguntza emateko berariazko ebazpenik eman, interesdunek ezetsizat jo beharko dute eskabidea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3.– Onuradunen zerrenda eta emandako diru-laguntzen zenbatekoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, jende orok horren berri izan dezan; nolana ere, horrek ez du esan nahi interesdunei zuzenean jakinaraziko ez zaienik.

4.– Agindu honetan aurreikusten ez diren kontuetan, diru-laguntzak emateko prozedurarako urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauerei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua bete beharko dira.

10. artikulua.– Justifikazioa eta ordainketa.

1.– Diru-laguntza jaso behar duen jarduera burutu eta diru-laguntza jasotzeko eskubidea ematen duen gastua faktura edo bestelako agiri bidez egiaztatutakoan ordainduko da diru-laguntza, dena batera. Gastu horiek II. eranskinean datorren taularen arabera zehaztuko dira. Nolanahi ere, eskabidearekin aurkeztu ez badira, 2012ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira behin betiko fakturak.

11. artikulua.– Diru-laguntza jasotzen dutenen betebeharrak.

1.– Agindu honetan azaltzen diren diru-laguntzak eskuratzen dituztenek honako betebeharrak izango dituzte kasu guztietan:

a) Diru-laguntza eskuratzeko beharrezko diren eskakizun eta baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu beharko diote diru-laguntza eman behar duen Administrazioari.

b) Emandako diru-laguntza onartu beharko dute. Diru-laguntzaren berri ematen dien jakinarazpena jaso, eta hamabost eguneko epean onuradunek idatziz uko egiten ez badiote, onartu egiten dutela ulertuko da.

c) Diru-laguntza, eman zaion horretarako erabili beharko du.

d) Helburu bererako beste laguntza edo diru-laguntzaren bat lortu badu, lortu duela eta nork eta zenbat eman dion jakinarazi beharko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Garraio Zuzendaritzari.

e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzen inguruan eskatzen dieten informazioa ematea.

2.– Artikulu honen 1.e puntuan adierazitako organoen ahalmena gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak diru-laguntza jaso duen jarduerari buruz bidezko jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu.

12. artikulua.– Diru-laguntzak emateko baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako egoeraren bat aldatuz gero, onuradunak beste administrazio batzuek edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu bererako emandako laguntza edo diru-laguntzak jasotzen baditu batera, diru-laguntza emateko agindua ere aldatu egin ahal izango da, betiere deialdi honetan onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunak betetzen jarraitzen badu.

13. artikulua.– Diru-laguntzak itzultzea.

Onuradunak Agindu honetan, diru-laguntza emateko Aginduan edo aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badu, organo aginpidedunak, onuradunari entzun ondoren, laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat deklaratu du, eta, halakorik izanez gero, dagokion diru kopurua Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzultzera behartuko du, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak, eta diru-laguntzetarako betebeharrak betetzen direla zaintzeko gainontzeko arauak ezarritakoa betetzeko. Kopuru hori diru-sarrera publikotzat joko da legeko ondorioetarako. Horrek guztiak ez du galaraziko, ordea, bestelako zehapenak jartzea, eta kalteengatik ordainak eta, halakorik izanez gero, erantzukizun penala ere eskatzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean, aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak Agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 19a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

I. ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA
SALGAIEN GARRAIO KONBINATUAREN SUSTAPENERAKO LAGUNTZAK

I.– IDENTIFIKAZIO DATUAK.

a) TITULARRA

Pertsona juridikoa:

IFZ/IFK:

Erakundearen izendapena:

Telefonoa : Faxe:

Posta elektronikoa:

edo

Pertsona fisikoa:

Lehen abizena: Bigarren abizena:

Izena: IFZ/AIZ:

Telefonoa : Faxe:

Posta elektronikoa:

b) ORDEZKARIA

Lehen abizena: Bigarren abizena:

Izena:

IFZ/AIZ:

II.– HELBIDE DATUAK.

Helbidea:

Lurraldea Udalerria:

Posta kodea:

III.– BANKU DATUAK.

Bankua (4 zifra): Sukurtsala (4 zifra):

Bankuaren kontrol-zifra (zifra bat):

Kontuaren kontrol-digitua (zifra bat):

Kontu-zenbakia (10 zifra):

IV.– ESKABIDEAREN XEDEA.

Entitateak salgaien garraio konbinatua sustatzeko laguntza eskatzen du:

a) 2012an guztira, BEZik gabe, euroko gastua egin dituen edo egin asmo du.

b) 2012an guztira ro-ro unitate garraiatu ditu eta garraiatzeko asmoa du.

V.– JAKINARAZPENETARAKO DATUAK.

Jakinarazpenetarako bidea (jarri x bat aukeratutakoari):

 Telematikoa Posta konbentzionala

Telematikoa bada:

Oharrak:

Posta elektronikoa:

SMS:

VI.– JAKINARAZPENETARAKO AUKERATUTAKO HIZKUNTZA.

- Gaztelania
- Euskara

VII.– ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK (markatu x batez):

- Ez dut xede eta helburu bererako beste administrazio batek edo erakunde pribatu batek emandako laguntzarik jaso, ez aurten, ez aurreko bi urteetan.
edo
- Beste laguntza bat ere jaso dut: Zenbatekoa:€. Laguntza eman didan administrazioa:.....
..... Urtea:
- edo
- Beste laguntza bat eskatu dugu, baina oraindik ebazpena jasotzeko zain nago. Eskatutako laguntzaren zenbatekoa:€. Administrazioa:
- Ez nago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo erakunde autonomiadunek emandako ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntza batzuen esparruan hasi zen eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko ezein prozeduratan.
- Ez zait diru-laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zigor administratiborik edo penalik ezarri, eta ez daukat horretarako legezko inolako debekurik (Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Seigarren Azken Xedapenean xedatutakoaren arabera sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne).
- Eskabidean jasotako datuak eta aurkeztutako dokumentazioa benetakoak direla.
- Laguntza hauek jasotzeko indarrean dagoen legeriak ezarritako eskakizun guztiak betetzen ditut, hori egiaztatzen duen dokumentazio guztia daukat eta hitz ematen dut diru-laguntza horri dagokion denboran zehar.

VIII.– AGIRIAK ESKURATZEKO ETA EGIAZTATZEKO BAIMENA (markatu x batez).

Eskabidea egiten duen pertsona fisikoaren identifikazio-datuen egiaztapena.

- Baimena ematen diot deialdi hau kudeatzen duen organoari, eskumenak dituen Administrazioan behar diren egiaztapen begiztapen lanak egin ditzan, baliabide telematikoen zein baliagarri dauden bestelako baliabideen bidez.

Hirugarrenen alta/aldaketa.

- Baimena ematen diot deialdi hau kudeatzen duen organoari, eskumenak dituen Administrazioan behar diren egiaztapen begiztapen lanak egin ditzan, baliabide telematikoen zein baliagarri dauden bestelako baliabideen bidez.

IX.– AURKEZTUTAKO AGIRIAK (markatu x batez):

- Nortasun agiri nazionalaren fotokopia (baldin eta kudeaketa-organuari hura lortzeko baimena eman ez bazaio).
- Eskabidea egiten duen pertsona juridikoaren identifikazio fiskalerako txartelaren edo IFKaren fotokopia.

2012ko irailaren 24a, astelehena

- Eskatzailea pertsona juridikoa bada, ahalordea ematen dion notarioaren agiria aurkeztu beharko du haren ordezkariak.
- Diruz laguntzekoak diren gastuen aurrekontua edo faktura, proformakoa nahiz behin betikoa.
- Azalpen-memoria, honako hauek jasoko dituen: Itsas zerbitzuen erabileraren gaineko aurreikuspena, garraiatu beharreko karga motaren deskripzio orokorra, kargaren abiapuntu eta helmuga izango diren estatuak, eta interesgarri jotzen den beste edozer.
- Ibilgailu astunetan salgaien garraio publikoan aritzeko, gutxienez eskatutako baimen kopurua baduela adierazten duen agiria.
- Hirugarrenei alta emateko edo aldatzeko fitxa, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari buruzko irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren 20. artikuluan deskribaturikoaren arabera (lehenengo aldia duten edo banku-datuak aldatu nahi dituzten eskatzaileek bakarrik).

X.– DATU PERTSONALEN BABESA.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorrituz, Eusko Jaurlaritzako Garraio Zuzendaritzak ondokoa adierazi nahi dizu: eman dituzun eta eskabide-orrian jasota dauden datuak Garraio Zuzendaritzaren «Garraio konbinatua sustatzeko laguntzak» izeneko fitxategian gordeko direla, Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinarazi ondoren; fitxategiaren xedea laguntzak kudeatzea dela, eta datu horien erabateko segurtasuna bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak dituela, eta zaizkiola hirugarrenei emango, legez gaitutako kasuetan izan ezik. Datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen legeriari jarraituz, eskubidea izango duzu nahi duzunean datuak eskuratu, zuzendu, ezereztatu edota horien kontra egiteko, 15/1999 Legeak ezarritako eran; horretarako, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Garraio Zuzendaritzara jo behar duzu (Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz).

Administrazio Publikoak, aurkeztutako datuak erkatu ahal izango ditu eta behar diren egiaztapenak egin, laguntzak behar bezala esleitze aldera.

Data:

Sinadura:

2012ko irailaren 24a, astelehena

II. ERANSKINA

Ibilbidea	Fakturaren data	Garraiaturiko Ro-Ro unitateak edo erdiatoiak	Zenbatekoa (eurotan)

2012an Garraiaturiko Ro-Ro unitateak edo erdiatoiak, Guztira	
Ro-Ro unitateen edo erdiatoiaren garraioetatik 2012an fakturaturikoa, Guztira	